TOLOSAKO
UDALA

TOLOSAKO GABONETAKO HAUR PARKEA ANTOLATU ETA KUDEATZEKO ZERBITZU-KONTRATUA ARAUTUKO DUEN PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA	PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE REGIRÁ EL CONTRATO DE ORGANIZACIÓN Y GESTIÓN DEL PARQUE INFANTIL DE NAVIDAD DE TOLOSA
Lehena.- Kontratuaren xedea	**Primera.- Objeto del contrato**
Preskripzio Tekniko Partikularren Plegu honen xedea da Tolosako Zerkausian Gabonetako Haur Parkea antolatu eta kudeatzeko beharrezkoak diren lan eta zerbitzuek bete beharreko gutxieneko baldintza teknikoak ezartzea. Kontratuaren helburua da Gabonetako oporraldian haurrei aisialdirako eta jolaserako espazio egoki, seguru, irisgarri eta doakoa eskaintzea, bereziki instalazio puzgarrien eta bestelako jolas-elementuen bidez. Horretarako, zerbitzuak barne hartuko ditu instalazioen hornidura edo alokairua, garraioa, muntaketa, instalazioa, erabileran zeharreko zaintza eta gainbegiratzea, erabiltzaileei arreta ematea, desmuntaketa eta jarduera amaitutakoan espazioa behar bezala uztea, bai eta zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren gainerako lanak ere.	El objeto del presente Pliego de Prescripciones Técnicas Particulares es establecer las condiciones técnicas mínimas que deberán cumplir los trabajos y servicios necesarios para la organización y gestión del Parque Infantil de Navidad en el Zerkausia de Tolosa. El contrato tiene como finalidad ofrecer a los niños y niñas, durante las vacaciones de Navidad, un espacio de ocio y juego adecuado, seguro, accesible y gratuito, especialmente mediante instalaciones hinchables y otros elementos de juego. Para ello, el servicio incluirá el suministro o alquiler de las instalaciones, su transporte, montaje e instalación, la vigilancia y supervisión durante su utilización, la atención a las personas usuarias, el desmontaje y la correcta restitución del espacio una vez finalizada la actividad, así como los demás trabajos necesarios para la adecuada ejecución del servicio.
Bigarrena.- Esleipendunak egin beharreko lanak	**Segunda.- Trabajos que deberá realizar la empresa adjudicataria**
Enpresa esleipenduna Gabonetako Haur Parkearen antolaketa, koordinazioa eta kudeaketa egokia egiteaz arduratuko da, Tolosako Udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Sailarekin koordinatuta. Esleipendunak egin beharreko lanak honako arlo hauetan multzokatzen dira: • Antolaketa eta koordinazioa.	La empresa adjudicataria será responsable de la correcta organización, coordinación y gestión del Parque Infantil de Navidad, en coordinación con el Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud del Ayuntamiento de Tolosa. Los trabajos que deberá realizar la empresa adjudicataria se agrupan en las siguientes áreas: • Organización y coordinación. • Suministro de instalaciones hinchables y elementos de juego.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

• Instalazio puzgarrien eta jolas-elementuen hornidura. • Garraioa, muntaketa, instalazioa eta desmuntaketa. • Erabiltzaileen arreta eta instalazioen zaintza. • Segurtasuna, higienea eta irisgarritasuna. • Espazioaren dekorazioa, elementu naturalekin, eta girotzea. • Zerbitzuaren amaierako lanak eta espazioa behar bezala uztea.	• Transporte, montaje, instalación y desmontaje. • Atención a las personas usuarias y vigilancia de las instalaciones. • Seguridad, higiene y accesibilidad. • Decoración y ambientación del espacio con elementos naturales. • Trabajos de finalización del servicio y correcta restitución del espacio.
2.1. Antolaketa eta koordinazio-lanak Enpresa esleipenduna Gabonetako Haur Parkea planifikatzeaz, antolatzeaz eta koordinatzeaz arduratuko da, eta Udaleko Kultura, Festak eta Gazteria Sailak emandako jarraibideen arabera jardungo du. Horretarako, honako lan hauek egingo ditu: • Zerbitzua behar bezala gauzatzeko beharrezko lan-programa prestatzea. • Instalazioen, langileen eta baliabide materialen antolaketa planifikatzea. • Muntaketa, prestaketa, jardueraren garapena, desmuntaketa eta espazioa uzteko lanak koordinatzea. • Udalarekin beharrezko bilerak eta koordinazio-lanak egitea. • Zerbitzuaren prestaketan edo garapenean sor daitezkeen gorabeheren berri ematea Udalari. • Haur parkea 7 orduz egon beharko du irekita, goizeko 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. • Jarduera behar bezala gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak aurreikustea eta eskuragarri izatea.	**2.1.Trabajos de organización y coordinación.** La empresa adjudicataria será responsable de planificar, organizar y coordinar el Parque Infantil de Navidad, actuando conforme a las instrucciones del Departamento de Cultura, Fiestas y Juventud del Ayuntamiento. A tal efecto, realizará los siguientes trabajos: • Elaborar el programa de trabajo necesario para la correcta prestación del servicio. • Planificar la organización de las instalaciones, el personal y los recursos materiales. • Coordinar los trabajos de montaje, preparación, desarrollo de la actividad, desmontaje y restitución del espacio. • Mantener las reuniones y realizar las tareas de coordinación necesarias con el Ayuntamiento. • Informar al Ayuntamiento de las incidencias que puedan surgir durante la preparación o el desarrollo del servicio. • El parque infantil deberá permanecer abierto durante 7 horas, de 11:00 a 14:00 horas y de 16:00 a 20:00 horas. • Prever y disponer de los recursos necesarios para la correcta ejecución de la actividad.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO
UDALA

2.2. Instalazio puzgarrien eta jolas-elementuen hornidura	**2.2. Suministro de instalaciones hinchables y elementos de juego.**
Enpresa esleipendunak Zerkausiaren espazioa betetzeko behar adina instalazio puzgarri eta bestelako jolas-elementu hornitu edo alokatu beharko ditu. Gutxienez 8 elementu kokatu beharko ditu.	La empresa adjudicataria deberá suministrar o alquilar un número suficiente de instalaciones hinchables y otros elementos de juego para ocupar el espacio del Zerkausia. Deberá instalar un mínimo de 8 elementos.
Instalazioek haurrei zuzendutako aisialdi-jarduerarako egokiak izan beharko dute, eta egoera onean egon beharko dute, erabilera segurua eta egokia bermatzeko. Eskaintzan aurkeztutako instalazioen ezaugarriak, erabilera-baldintzak eta, hala badagokio, gomendatutako adin-tarteak identifikatu beharko dira.	Las instalaciones deberán ser adecuadas para actividades de ocio dirigidas a la población infantil y encontrarse en buen estado, con el fin de garantizar un uso seguro y apropiado. En la oferta deberán identificarse las características de las instalaciones propuestas, sus condiciones de uso y, en su caso, los intervalos de edad recomendados.
Instalazio guztiek indarrean dagoen araudia eta fabrikatzailearen jarraibideak bete beharko dituzte, bereziki muntaketari, ainguraketari, egonkortasunari, erabilerari eta mantentze-lanei dagokienez.	Todas las instalaciones deberán cumplir la normativa vigente y las instrucciones del fabricante, especialmente en lo relativo al montaje, anclaje, estabilidad, utilización y mantenimiento.
2.3. Garraioa, muntaketa eta desmuntaketa.	**2.3. Transporte, montaje y desmontaje.**
Enpresa esleipendunaren ardura izango da instalazio puzgarriak eta gainerako jolas-elementuak Tolosako Zerkausira garraiatzea, muntatzea, instalatzea eta erabiltzeko prest uztea. Halaber, jarduera amaitutakoan, instalazioak desmuntatu eta erretiratu beharko ditu, eta erabilitako espazioa behar bezala utzi. Muntaketa eta desmuntaketa egiteko beharrezko langileak, tresnak, garraiobideak eta baliabide teknikoak esleipendunaren kontura izango dira. Instalazioak muntatu ondoren, enpresa esleipendunak egiaztatu beharko du behar bezala kokatuta eta finkatuta daudela, eta segurtasunez erabil daitezkeela. Instalazioetan akatsik edo segurtasun-arriskurik hautemanez gero, esleipendunak beharrezko neurriak hartu beharko ditu berehala. Segurtasuna	Será responsabilidad de la empresa adjudicataria transportar las instalaciones hinchables y los demás elementos de juego hasta el Zerkausia de Tolosa, montarlos, instalarlos y dejarlos preparados para su utilización. Asimismo, una vez finalizada la actividad, deberá desmontar y retirar las instalaciones y dejar el espacio utilizado en las debidas condiciones. El personal, las herramientas, los medios de transporte y los recursos técnicos necesarios para realizar el montaje y el desmontaje correrán a cargo de la empresa adjudicataria. Una vez montadas las instalaciones, la empresa adjudicataria deberá comprobar que están correctamente ubicadas y fijadas, y que pueden utilizarse con seguridad.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

bermatu ezin den kasuetan, instalazioa ezingo da erabili arazoa konpondu arte.	Si se detectan defectos o riesgos para la seguridad en las instalaciones, la empresa adjudicataria deberá adoptar inmediatamente las medidas necesarias. Cuando no pueda garantizarse la seguridad, la instalación no podrá utilizarse hasta que se haya solucionado el problema.
2.4. Erabiltzaileen arreta eta instalazioen zaintza	**2.4. Atención a las personas usuarias y vigilancia de las instalaciones.**
Enpresa esleipendunak instalazioen erabilera gainbegiratzeko eta haurrei arreta emateko beharrezko begiraleak jarri beharko ditu. Gutxienez 8 begirale egon beharko dute lan taldean. Begirale hauek egun bakoitzean 7 orduz lan egin beharko dute.	La empresa adjudicataria deberá disponer del personal monitor necesario para supervisar el uso de las instalaciones y atender a los niños y niñas. El equipo de trabajo deberá contar con un mínimo de 8 monitores o monitoras. Estas personas deberán trabajar 7 horas al día.
Langile horiek atrakzio bakoitzaren funtzionamendu egokia zainduko dute, erabiltzaileei erabilera-arauak azalduko dizkiete eta jarduera behar bezala garatzen dela bermatuko dute.	Dicho personal velará por el correcto funcionamiento de cada atracción, explicará a las personas usuarias las normas de utilización y garantizará el adecuado desarrollo de la actividad.
Atrakzio bakoitzak bere erabilera segurua bermatzeko beharrezko begiraleak izan beharko ditu. Gutxienez 8 atrakzio eskaini beharko ditu.	Cada atracción deberá contar con el personal monitor necesario para garantizar su utilización segura. Deberán ofrecerse un mínimo de 8 atracciones.
Langileek bereziki zainduko dute haurren segurtasuna, instalazioen erabilera egokia eta erabiltzaileen adinaren edo ezaugarrien araberako baldintzak betetzen direla. Era berean, jardueran zehar gerta daitezkeen gorabeherak kudeatu beharko dituzte, eta beharrezkoa denean Udaleko arduradunari jakinarazi.	El personal prestará especial atención a la seguridad de los niños y niñas, al uso adecuado de las instalaciones y al cumplimiento de las condiciones correspondientes a la edad y las características de las personas usuarias. Asimismo, deberá gestionar las incidencias que puedan producirse durante la actividad y comunicarlas a la persona responsable municipal cuando sea necesario.
2.5. Espazioaren dekorazioa eta girotzea	**2.5. Decoración y ambientación del espacio.**
Enpresa esleipendunak Zerkausia Gabonetako giroarekin apaintzeko beharrezko elementuak hornitu eta kokatuko ditu. Dekorazioak jardueraren izaerarekin bat etorri beharko du, eta ezingo ditu oztopatu sarbideak, ebakuazio-bideak, larrialdietarako irteerak edo instalazioen erabilera segurua. Era berean, esleipendunak espazioa girotzeko musika-ekipoa eta musika hornitu beharko ditu. Musika euskalduna beharko du izan.	La empresa adjudicataria suministrará y colocará los elementos necesarios para decorar el Zerkausia con motivos navideños.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

Ekipoak behar bezala instalatu eta erabiliko dira, eta segurtasun-baldintza eta aplikatu beharreko zarata-mailari buruzko araudia errespetatu beharko da. **2.6. Jardueraren amaiera eta espazioa uztea** Jarduera amaitutakoan, enpresa esleipendunak instalazio guztiak desmuntatu eta kenduko ditu, erabilitako materialak bilduko ditu eta Zerkausia garbituta utziko du. Esleipendunak bere jardueraren ondorioz sortutako hondakinak eta material-hondarrak bildu eta kudeatu beharko ditu, aplikatu beharreko araudiaren arabera. Halaber, erabilitako espazioan sortutako kalteak konpondu beharko ditu, kontratuaren eta indarreko araudiaren arabera dagokion erantzukizunaren barruan.	La decoración deberá ser acorde con la naturaleza de la actividad y no podrá obstaculizar los accesos, las vías de evacuación, las salidas de emergencia ni el uso seguro de las instalaciones. Asimismo, la empresa adjudicataria deberá suministrar un equipo de música y música para ambientar el espacio. La música deberá ser en euskera. El equipo deberá instalarse y utilizarse correctamente, respetando las condiciones de seguridad y la normativa aplicable en materia de niveles de ruido. **2.6. Finalización de la actividad y restitución del espacio** Una vez finalizada la actividad, la empresa adjudicataria desmontará y retirará todas las instalaciones, recogerá los materiales utilizados y dejará el Zerkausia limpio. La empresa adjudicataria deberá recoger y gestionar los residuos y restos de materiales generados como consecuencia de su actividad, de conformidad con la normativa aplicable. Asimismo, deberá reparar los daños ocasionados en el espacio utilizado, dentro del ámbito de responsabilidad que le corresponda conforme al contrato y a la normativa vigente.
Hirugarrena.- Kontratuaren balio zenbatetsia	**Tercera.- Valor estimado del contrato**
Kontratuaren balio zenbatetsiari, aurrekontuari eta lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari dagokienez, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan eta kontratazio-espedientean ezarritakoa hartuko da kontuan. Txosten teknikoan jasotako aurreikuspenaren arabera, eguneko prezioa 5156,72 eurokoa da, BEZa aparte, eta 6239,63 eurokoa, BEZa barne. Kopuru hau gehienez bider lau kalkulatu beharko da.	En lo relativo al valor estimado del contrato, al presupuesto y al presupuesto base de licitación, se estará a lo establecido en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y en el expediente de contratación. De acuerdo con la previsión recogida en el informe técnico, el precio diario asciende a 5.156,72 euros, IVA no incluido, y a 6.239,63 euros, IVA incluido. Esta cantidad deberá calcularse, como máximo, por cuatro.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

Eguneko prezio horrek kontratuaren xede diren prestazio guztiak gauzatzeko beharrezkoak diren kostuak barne hartu beharko ditu, hala nola langileak, instalazioak, garraioa, muntaketa, desmuntaketa, materialak, dekorazioa, musika-ekipoa, mantentzea, aseguruak eta gainerako gastu osagarriak. Behin betiko aurrekontua eta zerbitzu-egunen kopurua kontratazio-espedientean zehaztutakoaren arabera finkatuko dira.	El precio diario deberá incluir todos los costes necesarios para ejecutar las prestaciones objeto del contrato, tales como personal, instalaciones, transporte, montaje, desmontaje, materiales, decoración, equipo de música, mantenimiento, seguros y demás gastos accesorios. El presupuesto definitivo y el número de días de prestación del servicio se determinarán conforme a lo establecido en el expediente de contratación.
Laugarrena.- Kontratuaren iraupena	**Cuarta.- Duración del contrato**
Kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango da, eta urtebeteko bi luzapen egiteko aukera aurreikusten da, gehienez lau urteko iraupena osatu arte, Administrazio Klausula Partikularren Pleguan ezarritako baldintzen arabera. Hasierako kontratuaren barruan honako jarduera-aldi hauek sartuko dira: • 2026ko abenduaren 26tik 30era bitarteko Gabonetako Haur Parkea. • 2027ko abenduaren 26tik 30era bitarteko Gabonetako Haur Parkea. Kontratua luzatuz gero, honako jarduera-aldi hauek sartuko dira: • 2028ko abenduaren 26tik 30era bitarteko Gabonetako Haur Parkea. • 2029ko abenduaren 26tik 30era bitarteko Gabonetako Haur Parkea. Jardueraren egun eta ordutegi zehatzak Udalak zehaztuko ditu, urte bakoitzeko programazioaren eta kontratuaren baldintzen arabera.	La duración inicial del contrato será de dos años, contemplándose la posibilidad de realizar dos prórrogas de un año cada una, hasta alcanzar una duración máxima de cuatro años, de acuerdo con las condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares. Dentro del contrato inicial se incluirán los siguientes periodos de actividad: • Parque Infantil de Navidad del 26 al 30 de diciembre de 2026. • Parque Infantil de Navidad del 26 al 30 de diciembre de 2027. En caso de prórroga del contrato, se incluirán los siguientes periodos de actividad: • Parque Infantil de Navidad del 26 al 30 de diciembre de 2028. • Parque Infantil de Navidad del 26 al 30 de diciembre de 2029. El Ayuntamiento determinará las fechas y los horarios concretos de la actividad, de acuerdo con la programación de cada año y las condiciones del contrato.
Bosgarrena.- Giza baliabideak eta lizitatzaileak jarri beharreko baliabide materialak.	**Quinta.- Recursos humanos y materiales que deberá aportar la empresa licitadora**
Lizitatzaileak bere eskaintzan egiaztatu beharko du badituela plegu honetan deskribatutako lanak egiteko beharrezko	La empresa licitadora deberá acreditar en su oferta que dispone de los recursos técnicos, materiales y humanos

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

baliabide teknikoak, materialak eta giza baliabideak, zerbitzua behar bezala gauzatzeko nahikoak eta egokiak.	necesarios para realizar los trabajos descritos en este pliego, y que estos son suficientes y adecuados para la correcta prestación del servicio.
5.1. Giza baliabideak	**5.1. Recursos humanos**
Enpresa esleipendunak kontratua behar bezala gauzatzeko behar adina langile izan beharko ditu, jardueraren ezaugarrien eta une bakoitzeko beharren arabera. Gutxienez, honako eginkizun hauek betetzeko langileak izan beharko ditu: • Instalazioen garraioa, muntaketa eta desmuntaketa egiteko langileak. • Atrakzio bakoitzaren zaintzaz eta gainbegiratzeaz arduratuko diren begiraleak. • Erabiltzaileei arreta emateko beharrezko langileak. • Zerbitzuaren antolaketa eta koordinazio orokorra egiteko arduraduna. Langile kopuruak instalazioen ezaugarriei eta jardueraren beharrei erantzun beharko die, segurtasuna eta zerbitzuaren funtzionamendu egokia bermatzeko. Langileek beren eginkizunak betetzeko beharrezko prestakuntza eta gaitasuna izan beharko dituzte, eta behar bezala identifikatuta egon beharko dute. Enpresa esleipendunak bere gain hartuko ditu langileen kontratazioari, prestakuntzari, laneko arriskuen prebentzioari eta indarreko lan-araudia betetzeari dagozkien betebeharrak.	La empresa adjudicataria deberá disponer de personal suficiente para ejecutar correctamente el contrato, de acuerdo con las características de la actividad y las necesidades existentes en cada momento. Como mínimo, deberá disponer de personal para desempeñar las siguientes funciones: • Personal encargado del transporte, montaje y desmontaje de las instalaciones. • Monitores o monitoras responsables de la vigilancia y supervisión de cada atracción. • Personal necesario para atender a las personas usuarias. • Una persona responsable de la organización y coordinación general del servicio. El número de trabajadores deberá adecuarse a las características de las instalaciones y a las necesidades de la actividad, con el fin de garantizar la seguridad y el correcto funcionamiento del servicio. El personal deberá contar con la formación y las competencias necesarias para desempeñar sus funciones y estar debidamente identificado.
5.2. Enpresa esleipendunak jarri beharreko materiala Kontratua behar bezala gauzatzeko beharrezko baliabide material guztiak enpresa esleipendunaren kontura izango dira.	La empresa adjudicataria asumirá las obligaciones relativas a la contratación y formación del personal, la prevención de riesgos laborales y el cumplimiento de la normativa laboral vigente. **5.2. Material que deberá aportar la empresa adjudicataria.**

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

Gutxienez, honako material eta baliabide hauek hornitu beharko ditu: • Zerkausiaren espazioa betetzeko puzgarriak eta jolas-elementuak. • Instalazioak garraiatzeko beharrezko ibilgailuak eta baliabideak. • Instalazioak muntatu, finkatu, erabili eta desmuntatzeko materiala. • Zerkausia apaintzeko eta Gabonetako giroa sortzeko elementuak. • Espazioa girotzeko musika-ekipoa eta musika. • Instalazioen funtzionamendu egokia eta segurtasuna bermatzeko beharrezko tresnak eta osagarriak. • Zerbitzuaren garapenerako beharrezkoak diren gainerako baliabide materialak. Material guztiak egoera onean egon beharko dira, eta jardueraren ezaugarrien eta aplikatu beharreko araudiaren araberakoak izan beharko dute. Enpresa esleipendunak material horien garraioa, muntaketa, instalazioa, mantentzea, desmuntaketa eta erretiratzea bere gain hartuko ditu.	Todos los recursos materiales necesarios para la correcta ejecución del contrato correrán a cargo de la empresa adjudicataria. Como mínimo, deberá suministrar los siguientes materiales y recursos: • Hinchables y elementos de juego para ocupar el espacio del Zerkausia. • Vehículos y medios necesarios para transportar las instalaciones. • Material necesario para montar, fijar, utilizar y desmontar las instalaciones. • Elementos decorativos para acondicionar el Zerkausia y crear un ambiente navideño. • Equipo de música y música para ambientar el espacio. • Herramientas y accesorios necesarios para garantizar el correcto funcionamiento y la seguridad de las instalaciones. • Los demás recursos materiales necesarios para el desarrollo del servicio. Todos los materiales deberán encontrarse en buen estado y ser adecuados a las características de la actividad y a la normativa aplicable. La empresa adjudicataria asumirá el transporte, montaje, instalación, mantenimiento, desmontaje y retirada de dichos materiales.
Seigarrena.- Segurtasuna, higienea eta irisgarritasuna	**Sexta.- Seguridad, higiene y accesibilidad**
Enpresa esleipendunak jardueraren garapen osoan zehar erabiltzaileen, langileen eta hirugarrenen segurtasuna bermatzeko beharrezko neurriak hartu beharko ditu. Instalazioek eta erabilitako materialek indarrean dagoen segurtasun-, higiene-, irisgarritasun- eta prebentzio-araudia bete beharko dute.	La empresa adjudicataria deberá adoptar las medidas necesarias para garantizar la seguridad de las personas usuarias, del personal y de terceras personas durante todo el desarrollo de la actividad. Las instalaciones y los materiales utilizados deberán cumplir la normativa

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

Horretarako, honako betebehar hauek bete beharko ditu: • Instalazioak behar bezala muntatuta eta egonkortuta daudela bermatzea. • Puzgarriak fabrikatzailearen jarraibideen eta aplikatu beharreko segurtasun-baldintzen arabera instalatu eta erabiltzea. • Instalazio bakoitzaren erabilera-arauak eta, hala badagokio, adin- edo altuera-mugak argi adieraztea. • Instalazioen erabilera gainbegiratzea eta arrisku-egoerak saihestea. • Sarbideak eta ebakuazio-bideak libre eta erabilgarri mantentzea. • Instalazioak eta materialak aldizka ikuskatzea jarduerak irauten duen bitartean. • Gorabeherarik edo segurtasun-arriskurik hautemanez gero, beharrezko neurriak berehala hartzea. • Segurtasuna bermatu ezin den instalazio oro erabileratik kanpo uztea, arazoa konpondu arte. • Espazioaren higiene- eta garbitasun-baldintza egokiak mantentzea. Enpresa esleipendunak langileei laneko arriskuen prebentzioari buruzko beharrezko informazioa eta prestakuntza emango dizkie. • Larrialdi-egoerarik gertatuz gero, enpresak berehala jardun beharko du eta beharrezkoa denean udal-zerbitzuekin eta larrialdi-zerbitzuekin koordinatuko da.	vigente en materia de seguridad, higiene, accesibilidad y prevención. A tal efecto, deberá cumplir las siguientes obligaciones: Garantizar que las instalaciones estén correctamente montadas y estabilizadas. Instalar y utilizar los hinchables de acuerdo con las instrucciones del fabricante y las condiciones de seguridad aplicables. Indicar claramente las normas de uso de cada instalación y, cuando proceda, las limitaciones de edad o altura. Supervisar el uso de las instalaciones y prevenir situaciones de riesgo. Mantener los accesos y las vías de evacuación libres y operativos. Inspeccionar periódicamente las instalaciones y los materiales durante el desarrollo de la actividad. Adoptar inmediatamente las medidas necesarias cuando se detecten incidencias o riesgos para la seguridad. Retirar del servicio cualquier instalación cuya seguridad no pueda garantizarse, hasta que se resuelva el problema. Mantener unas condiciones adecuadas de higiene y limpieza del espacio. La empresa adjudicataria proporcionará a su personal la información y formación necesarias en materia de prevención de riesgos laborales. En caso de emergencia, la empresa deberá actuar inmediatamente y coordinarse, cuando sea necesario, con los servicios municipales y los servicios de emergencia.
Zazpigarrena.- Erantzukizun zibileko asegurua	**Séptima.- Seguro de responsabilidad civil**
Enpresa esleipendunak erantzukizun zibileko aseguru bat izan beharko du indarrean kontratua gauzatzen den bitartean. Aseguruak gutxienez 150.000 euroko estaldura izan beharko du, kontratuaren xede den jardueraren ondorioz	La empresa adjudicataria deberá disponer de un seguro de responsabilidad civil en vigor durante la ejecución del contrato. El seguro deberá contar con una cobertura mínima de 150.000 euros para

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO
UDALA

erabiltzaileei, langileei edo hirugarrenei eragin dakizkiekeen kalte eta galerak estaltzeko. Udalak hala eskatzen badu, enpresa esleipendunak aseguru-polizaren eta dagokion ordainketaren egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.	cubrir los daños y perjuicios que puedan ocasionarse a las personas usuarias, al personal o a terceras personas como consecuencia de la actividad objeto del contrato. Si el Ayuntamiento lo solicita, la empresa adjudicataria deberá presentar una copia de la póliza del seguro y el justificante del pago correspondiente.
Zortzigarrena.- Hizkuntza baldintzak	**Octava.- Condiciones lingüísticas**
Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan ezarria eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak eta hori garatzen duten arauek erregulatua.	Este contrato deberá cumplir obligatoriamente el régimen de cooficialidad lingüística establecido en el artículo 6 del Estatuto de Autonomía del País Vasco y regulado por la Ley 10/1982, de 24 de noviembre, Básica de Normalización del Uso del Euskera, así como por las normas que la desarrollan.
Bederatzigarrena.- Aplikatu beharreko araudia	**Novena.- Normativa aplicable**
Kontratua gauzatzean, enpresa esleipendunak kontratuaren xedeari aplikagarri zaion araudia bete beharko du, bereziki honako hau: • 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa. • 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, aplikagarri den neurrian. • 10/2015 Legea, abenduaren 23koa, Euskadiko Jendaurreko Ikuskizun eta Jolas Jarduerei buruzkoa, aplikagarri den neurrian. • 31/1995 Legea, azaroaren 8koa, Laneko Arriskuen Prebentzioari buruzkoa. • Irisgarritasunari, segurtasunari, suteen prebentzioari eta autobabesari buruzko araudia, aplikagarri den neurrian.	Durante la ejecución del contrato, la empresa adjudicataria deberá cumplir la normativa aplicable al objeto del contrato, en particular la siguiente: Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público. Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, en la medida en que resulte aplicable. Ley 10/2015, de 23 de diciembre, de Espectáculos Públicos y Actividades Recreativas de Euskadi, en la medida en que resulte aplicable. Ley 31/1995, de 8 de noviembre, de Prevención de Riesgos Laborales. Normativa en materia de accesibilidad, seguridad, prevención de incendios y autoprotección, en la medida en que resulte aplicable. Normativa sobre protección de datos personales, cuando así lo requiera la ejecución del servicio. Normativa del Ayuntamiento de Tolosa y del municipio relativa a la normalización del uso del euskera.

ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56

TOLOSAKO UDALA

• Datu pertsonalen babesari buruzko araudia, zerbitzuaren gauzatzeak hala eskatzen badu. • Tolosako Udaleko eta udalerriko euskararen erabilera normalizatzeko araudia. • Kontratuaren xedearekin lotura duten gainerako xedapen tekniko eta sektorialak. Enpresa esleipendunak indarrean dauden legezko eta arauzko baldintzak bete beharko ditu kontratua gauzatzen den unean. Tolosan, sinadura elektronikoaren egunean Gazteria Saileko teknikaria Nerea Cereceda Gurrutxaga	Las demás disposiciones técnicas y sectoriales relacionadas con el objeto del contrato. La empresa adjudicataria deberá cumplir los requisitos legales y reglamentarios vigentes en el momento de la ejecución del contrato. En Tolosa, a la fecha de la firma electrónica. Nerea Cereceda Gurrutxaga Técnica del Departamento de Juventud

Nork Sinatua / Firmado por: NEREA CERECEDA GURRUTXAGA - 44166112V
2026/10/16 13:43:23

EKS | CSV: ESKU040cdcbc-fe22-4579-933c-44a1e7d92d56
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=07110